

Hezkuntza Sailak aginduriko irakasle eta gainerako langile guztien eskolaratzearen aurrean, langileek ikastetxera joan beharrik gabe telelanean jarraitzea exijitzen diogu

Datorren ikasturte hasierako plangintza, segurtasun neurriak, beharrezko plantila gehikuntzak zein itzulera baldintzak langileon ordezkariokin negoziatzeko galdegiten diogu

Hezkuntza Sailak maiatzak 19an publiko egin zuen jarraibidearen arabera, datorren astetik aurrera administrazio publikoko ikastetxeetako etapa guztietako irakasle, hezitzaile eta gainerako langileek aurrez aurreko eskolak emango ez diren mailetan ere, ikastetxeetara itzuli beharko lukete.

Aste honetan oso gutxi izan dira ikasketa presentzialak abian jarri dituztenak eta egin dutenek oso ikasle kopuru murriztzentzat egin dute. Datozen asteetan ere, eta oro har ikasturte amaiera bitarte, dinamika bera espero da. Beraz, argi geratu da ikastetxe gehienek, Hezkuntza Sailaren irizpide arduragabeen aurrean, sindikatuon irizpideen ildotik doazen planteamenduak jarraitu dituztela. Ondorioz, Hezkuntza Sailak emandako protokolo eta osasun jarraibideen gabezia eta hutsune nabarien gaintik, hein handi batean osasuna bermatzeko segurtasun neurriak hartzea ahalbidetu da.

Hala ere, gogoratu behar dugu Hezkuntza Sailak maiatzaren 19an beste behin ere zentzu eta zehaztasun gabeko aldebakarreko erabaki berri bat hartu zuela eta honen arabera aurrez aurreko ikasketarik abian jarri ez arren, maila guztietako irakasle eta langileak ekaineko lehenengo astetik aurrera eskoletara presentzialki joateko jarraibide orokorra eman zuela. Aurrez aurreko ikasketetara joango diren ikasle zein irakasleei, maila guztietako gainerako irakasle eta langileak gehituz.

Erabaki hau berriro ere langileon ordezkariekin adostu zein partekatu gabe hartu du Hezkuntza Sailak eta erabakia gauzatzeko irizpide edo jarraibide zehatzik ezarri gabe bidali du ikastetxeetara. Gainera, azken erabaki honen zehaztasun faltaz gain, salatzekoa da osasunarentzat arrisku gehigarria suposatzen duen eta atzean inolako arrazoi pedagogikorik ez duen zentzu gabeko erabakia dela.

Horretaz gain, irizpide komunik gabe gauzatzen ari den jarraibidea da, ikuskaritzatik zonaldearen arabera irizpide ezberdinak ematen dituztelarik. Ikuskaritza Nagusiari eta Hezkuntza Sailari irizpide komun bakarra ezar dezala exijitzen diogu, langileek ikastetxera joan beharrik gabe telelanean jarraitzea.

Kontuan izan behar da langile hauek telelanean ari direla eta hala jarraitu behar dutela ikasleei arreta ematen. Ikastetxera joateko agindua eman zaie orain baina zertara zehaztu gabe, ez nola edo zenbat denboraz. Beraien lanaldi osoa ikastetxean gauzatzea bada helburua eta beraz, bertatik ematea ikasleen arreta, kontuan izan behar da ikastetxe askotan ez dagoela nahikoa gailu tekniko eta baliabide langile bakoitzak telelana ikastetxetik egin ahal izateko. Hori ez balitz helburua, zehaztu beharko litzateke zein neurritan etxetik jarraitu beharko duten telelanean,

zertara joan beharko luketen ikastetxera, nola banatuko den beraien lanaldia eta funtzioak eta abar luze bat.

Beraz, Hezkuntza sailaren azken erabaki honek, arduragabekeria eta inprobisazio erakustaldi berri batean, jada nahiko nahasia dagoen egoera oraindik eta gehiago nahastea dakar, osasun ikuspegitik izan ditzakeen ondorio larriak kontuan izan gabe.

Guzti honengatik, sindikatuok azken aldebakarreko erabaki hau atzera botatzeko galdegiten diogu Hezkuntza sailari. Adi egongo garela ikastetxeetan osasun neurriak betetzen direla ziurtatzeko, hala ez den kasuetan beharrezko neurri eta tresnak abian jarritz.

Datorren ikasturtera begira, Hezkuntza sailari galdegiten diogu ezinbestean langileon ordezkariokin adostu ditzala ikasturte hasierari begirako segurtasun eta osasun neurriak, hala nola ratio murrizketa egokienak, ratio horiek betetzeko beharrezko langile zein plantila handitzeak, garbitasunaren maiztasuna gehitzeak ekarri behar duen plantila gehikuntza eta lanaldien egokitzapenak besteak beste.

Hau horrela, Hezkuntza sailari exijitzen diogu datorren ikasturte hasierako plangintza langileon ordezkariokin negoziatu eta adosteko bidean, sindikatuokin berehala bildu dadila, ordezkari on iritzi eta ekarpenak aintzat har ditzala eta datorren ikasturte hasiera seguru eta adostu bat ahalbideratu dezala. Bide batez, eskolara buelta elkarrekin prestatzean, aprobe txatu dezagun hezkuntza sistema hobetzeko behar diren aldaketa sakonak egiteko.

Euskal Herrian 2020ko maiatzaren 29an



Ante la orden dictada por el Departamento de Educación que establece la vuelta del profesorado y del resto del personal a las escuelas, exigimos que el personal continúe teletrabajando sin necesidad de acudir al centro

Le pedimos nuevamente que negocie con los y las representantes la planificación de comienzo de curso, las medidas de seguridad, los incrementos de plantilla necesarios y las condiciones de retorno.

Según la instrucción hecha pública por el Departamento de Educación el pasado 19 de mayo, a partir de la próxima semana el profesorado, las educadoras y demás personal de todas las etapas de las escuelas de la administración pública deberán reincorporarse a los centros también en los niveles en los que no se impartirán clases presenciales.

Esta semana han sido muy pocos los que han puesto en marcha los estudios presenciales y los que lo han hecho lo han hecho para un número muy reducido de alumnado. Por tanto, ha quedado claro que la mayoría de los centros, frente a los criterios irresponsables del Departamento de Educación, han seguido planteamientos que van en línea con los de los sindicatos, por lo que, por encima de las carencias y lagunas evidentes en los protocolos y directrices sanitarias dictadas por el Departamento de Educación, se ha posibilitado en gran medida la adopción de medidas de seguridad para garantizar la salud.

No obstante, hay que recordar que el Departamento de Educación adoptó el 19 de mayo una nueva decisión unilateral sin sentido ni concreción, según la cual, a pesar de no poner en marcha estudios presenciales, el profesorado y personal de todos los niveles debe asistir presencialmente a las escuelas a partir de la primera semana de junio. Sumándose así al alumnado y profesorado que acuda a las clases presenciales el resto del profesorado y personal de todos los niveles.

Esta decisión ha sido adoptada de nuevo por el Departamento de Educación sin haber sido consensuada o compartida con la representación de los trabajadores y trabajadoras y remitida a los centros educativos sin establecer criterios o directrices concretas para llevarla a cabo.

Además de la falta de concreción de esta última decisión, es para denunciar que se trata de una decisión sin sentido que supone un riesgo añadido para la salud y que no tiene ninguna razón pedagógica detrás.

Además, es una pauta que se está llevando a cabo sin criterios comunes y que desde la inspección aportan criterios diferentes en función de la zona. Exigimos por tanto a la Inspección General y al Departamento de Educación que establezcan un único criterio común, que el personal siga teletrabajando sin necesidad de acudir al centro.

Hay que tener en cuenta que este personal está en modalidad de teletrabajo y así es como debe seguir atendiendo al alumnado. Sin embargo, ahora se les ha dado la orden de ir al centro, pero

sin especificar a qué, ni cómo ni por cuánto tiempo. Si el objetivo es que toda su jornada se desarrolle en el centro y, por tanto, que el alumnado sea atendido desde él, hay que tener en cuenta que en muchos centros no existen dispositivos técnicos y recursos suficientes para que cada trabajador pueda realizar el teletrabajo desde el centro. Si ese no fuera el objetivo, habría que concretar en qué medida deberán seguir teletrabajando desde casa, a qué deberían ir al centro, cómo se distribuirá su jornada laboral y sus funciones, y un largo etcétera.

Por lo tanto, esta última decisión del Departamento de Educación, en una nueva demostración de irresponsabilidad e improvisación, supone confundir aún más una situación ya bastante confusa, sin tener en cuenta las graves consecuencias que puede tener desde el punto de vista sanitario.

Por todo ello, los sindicatos pedimos al Departamento de Educación que rechace esta decisión unilateral. Estaremos vigilantes para asegurar el cumplimiento de las medidas sanitarias en los centros educativos, poniendo en marcha las medidas y herramientas necesarias en caso de que no sea así.

De cara al próximo curso, solicitamos al Departamento de Educación que acuerde necesariamente con la representación sindical las medidas de seguridad y salud de cara al inicio del curso, así como una adecuada reducciones de ratios, el incremento de trabajadoras y de plantilla necesario para cubrir dichas ratios, el incremento de plantilla que debe suponer el incremento de la frecuencia de limpieza y la adecuación de las jornadas laborales, entre otros.

Por ello, exigimos al Departamento de Educación que inicie un proceso de negociación y acuerdo con los sindicatos de cara a la planificación de comienzo de curso, se reúna inmediatamente con dichos sindicatos, tenga en cuenta sus opiniones y aportaciones y posibilite un inicio de curso seguro y consensuado. De paso, en la preparación de la vuelta a la escuela, aprovechemos para hacer los cambios profundos necesarios para mejorar el sistema educativo.

En Euskal Herria, 29 de mayo de 2020

